

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 401/2020 Erabakia, abuztuaren 4koa. Onespena ematea Enargi Araba SA foru sozietate publikoa eratzeari

1987ko azaroaren 11n, ALHAOn (133 zk.) argitaratu zen 15/1987 Foru Araua, urriaren 30ekoa, Ekonomia Jardueren eta Foru Zerbitzu Publikoen Kudeaketari buruzkoa, beharra baitzegoen foru organismo autonomoak eta foru sozietate publikoak eratzeko foru aldundiak jarraitu beharreko araudia ezartzeko. Bertan, zioen azalpenean jasota gelditu zen foru zerbitzu publikoen kudeaketa eta horiek ematea, indarrean dagoen legediari jarraituz, hainbat tresna motaren bidez egin daitekeela, departamentuen administrazio klasikoaren esparrutik irtetea komeni denean zerbitzua konplexua edo berezia delako.

Helburu horrekin, 1. artikulua zehazten du probintziako zerbitzu publikoak foru aldundiak zuzenean edo zeharka kudeatu ditzakeela, eta zuzeneko kudeaketa honako formaren batean egin behar dela (2. artikulua): "a) Foru aldundiak berak kudeatzea, zerbitzu publikoa ematea gai horretarako eskumena duen sailari esleituz; b) Foru organismo autonomoa; c) Foru sozietate publikoa".

Foru sozietate publikoak zer diren definitzeko, kapital sozial guztiz publikoa duten merkataritza sozietateak aipatzen ditu, zerbitzu edo jarduera ekonomikoak kudeatzeko enpresa pribatu moduan eratutakoak, eta bertan jasotzen ditu modu formalean Diputatuen Kontseiluaren Erabakiz hartu beharreko eratzeko erabakiaren xehetasunak.

Foru Gobernu Kontseiluaren Erabaki baten bidez, 2009ko ekainaren 23an Araban Energia Berriztagarriak Sustatu eta Garatzeko Plana (2010-2020) onartu zen. Gero, Arabako Batzar Nagusiek berretsi zuten. Planaren helburua da energia aurrezteko eta eraginkortasun energetikoko ekintzak abian jartzea eta, bereziki, Arabako Lurralde Historikoan energia berriztagarriak ezartzea eta horiek erabiltzea sustatzea. Planak azpimarra egiten du sektore publikoan eta, testuinguru horretan, esku hartzen duten administrazioek hartu behar duten eredu emateko zeregina ere bai, jasangarritasun energetikoa politika publikoetan txertatzeko.

Lan ildo hori indartu egin zuen 4/2019 Legeak, otsailaren 21ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoak, besteak beste, energia berriztagarrietatik datorren energia horniduraren lan ildo nabarmenak baitu.

Lan esparru horretan, eremu horretan garatu beharreko jarduketak errazteko, egoki iritzi zaio foru sozietate bat sortzeari, zeinaren xede soziala izango den Arabako Lurralde Historikoan energia iturri berriztagarrietatik lortutako energia ekoiztearekin lotutako jarduera mota guztiak sustatzeko, helburu hori duten instalazioak sustatzea, eraikitzea eta ustiatzea barne.

Foru Gobernu Kontseiluaren 213/2020 Erabakiaren, maiatzaren 26koaren, bitartez, Arabako Foru Aldundiaren A Plana onartu zen, COVID-19aren eraginetatik Arabako Lurralde Historikoan Ekonomia Berreskuratzeko.

Ebazpen horretan, plan hori egituratzen duten 10 esparruak jaso ziren eta adierazi zen, besteak beste, Arabako eguzki parke berri baten sorrera eta inguruko lursailetan nekazaritzako eta ingurumeneko proiektu bat bultzatzea. Jarduketa horren barruan dago Enargi Araba SA enpresa sortzea, zeinaren xedea izango den energia berriztagarriaren ekoizpenarekin lotutako jarduketa mota guztiak sustatzea eta bultzatzea.

Arabako Foru Aldundia izango da kapital sozial osoaren titularra.

Honako hauek dira sozietatearen eraketa memorian garatutako foru sozietate publikoaren helburuak:

- Energia berriztagarria sortzearen alorrean Arabako Foru Aldundiak bere ondareari txertatutako aktiboak titularizatzea eta kudeatzea.
- Parte hartzea foru aldundiari dagozkion eskumenen esparruan energia berriztagarria sortzeko ekimenak bultzatzen, sustatzen eta kudeatzen.
- Arabako elektrizitatearen sektoreko eragileei laguntzea proiektu eta ekimen elektrikoak sustatzeko Europako funtsak eskuratzen.
- Esku hartzea energia sozializatzeko ekimenen kontrol publikoan.

Horri jarraituz, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak eztabaidatu ondoren, gaurko saioan hauxe,

ERABAKITZEN DA

Lehenengoa. Enargi Araba SA foru sozietate publikoa eratzea onartzea. Eratzeko unean Arabako Foru Aldundia da bazkide bakarra, baina gero beste erakunde publiko batzuen partaidetza ere eduki ahalko du.

Bigarrena. Ezartzea aipatutako Enargi Araba SA foro sozietate publiko bat dela, Kapital Sozietateei buruzko Legean, aplikagarria den foru araudian eta bere estatutu sozialetan xedatutakoari jarraituko diona.

Hirugarrena. Honako hau izango da Enargi Araba SA sozietatearen xedea:

a) Energia sortzea eta merkaturatzea, iturri berriztagarriak erabiltzen dituzten instalazioen bitartez, esaterako, ekoizpen hidraulikoa, eolikoa, eguzkiko termikoa, fotovoltaikoa, eta biomasatik edo hidrogenotik lortutakoa.

b) Bioerregaiak eta produktu eratorriak ekoiztea, tratatzea eta merkaturatzea.

c) Aurreko "a" eta "b" apartatuetan jasotako instalazioetako proiektuak egitea, bertako ingeniariak, horiek eraikitzea, abiatzea, horien mantentze lanak eta horiek besterentzea, hala berezkoak nola hirugarrenenak, baita instalazio mota horiekin lotutako azterketa zerbitzuak, ingeniarietako azterlanak edo energia aholkularitzakoak, ingurumen aholkularitzakoak eta aholkularitza tekniko eta ekonomikokoak ere.

Laugarrena. Hasierako kapital soziala 60.000 eurokoa da (hirurogei mila euro), 100 (ehun) euroko balio nominaleko 600 partaidetza sozialek ordezkaturak. Guztiak Arabako Foru Aldundiak izenpetu eta ordainduko ditu. Kapital hori diruz ordainduko da, 60.000 euro (hirurogei mila euro), sozietateak horretarako ezarritako kontu korrontean, indarrean dagoen Arabako Foru Aldundiko Gastuen Aurrekontuko partida honen kontura: "60.2.05 64.00.850.90.01 A Plana: Enargi Araba SA"

Bosgarrena. Enargi Araba SA sozietatearen estatutu sozialak onartzea, erabaki honi eranskin gisa atxikitakoak.

Seigarrena. Enargi Araba SA foro sozietate publikoa Ingurumen eta Hirigintza Sailari atxikita geldituko da, diputatu nagusiaren 324/2019 Foru Dekretuaren, uztailaren 5ekoaren, arabera energia berriztagarrien gaiaren eskumena duenari, jarraituz.

Zazpigarrena. Administrazio Kontseiluko ordezkariak izendatzea, lau urterako. Honako kargu eta pertsona hauek osatuko dute:

Presidentea: Ingurumeneko eta Hirigintzako foru diputatu titularra, Josean Galera Carrillo jauna.

Kontseilukideak:

- Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatua, Pilar García de Salazar Olano andrea, presidenteordea izango dena.
- Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatua, Cristina González Calvar.
- Ogasunaren, Finantzen eta Aurrekontuen foru diputatua, Itziar Gonzalo de Zuazo --. Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua, Irma Basterra Ugarriza andrea.
- Nekazaritza Saileko diputatua, Eduardo Aguinaco López de Suso.
- Arlo Estrategikoetako zuzendaria, Jose Luis Cimiano jauna.
- Lurralde Orekako zuzendaria, Jesús María Guinea Díaz de Otalora.
- Ingurumenaren eta Hirigintzaren zuzendaria, Natividad López de Munain Alzola andrea.

Idazkaria: Aldundiko Idazkaritza Nagusiko zerbitziburua, Inés Vadillo Alzola andrea, eta haren ordekoa izango da, hala badagokio, hark izendatutakoa.

Zortzigarrena. Ingurumenaren eta Hirigintzaren Saileko zuzendaria, Natividad López de Munain Alzolari baimena ematea sozietatea eskritura publikoan eratzeko beharrezko egintzak egiteko eta dokumentuak emateko, baita dagozkion erregistro publikoetan inskribatzeko eskatzeko ere. Eskuordetze honen barruan daude, berariaz, argitzeko, zuzentzeko edo zabaltzeko ahalmenak, beharrezkoak suertatuz gero.

Bederatzigarrena. Erabaki honekin amaitzen da administrazio bidea, eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 123. artikuluari jarraituz, hautazko berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da Foru Gobernu Kontseiluaren aurrean, hilabeteko epean, hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo, bestela, zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan aurkaratu ahalko da, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko abuztuaren 4an

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ingurumenaren eta Hirigintzaren Saileko diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumenaren eta Hirigintzaren zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA